

ALKATEAREN PROPOSAMENA

Izaro Elorza Arregui andrea, Oñatiko Udaleko alkate-presidentea, legediak ematen dizkidan eskumenak baliatuz.

Gaia: Oñatiko kirol elkarte eta taldeei dirulaguntzak 2024: dirulaguntzen azken zuriketa eta likidazioa

Oscar Carrascal jaunak (Kirol teknikariak eta batzordeko idazkariak) urtarilaren 31an egindako txostenean (CSV zkia: ESKU592f9b35-b57c-4d36-89a2-6d6ac609cfaf) honako PROPOSAMENA egin zuela:

Udaleko Zubikoa kiroldegiko zuzendaria naizen honek honako txostena ematen dut:

Espediente zk.: 2024ZDK00007

Interesduna: OÑATIKO UDALA

Gaia: Oñatiko kirol elkarte eta taldeei dirulaguntzak 2024

Sarrera erregistroa: 0000/000000

Zubikoa kiroldegiko zuzendari jaunak hasitako prozedura aztertu da.

Gertakariak:

Lehenengoa.-

Osoko Bilkurak, 2024ko otsailaren 29an, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen: kirol arloko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta 2024ko deialdia onartzea. Ondorioz, bi dirulaguntza lerro ezberdinetan dirulaguntza eskaerak egiteko deialdiak abiarazi ziren:

- 1.- Oñatiko Udalerriko kirol elkarteek kirola sustatzeko antolatzen dituzten ekintzetarako diru-laguntzak
- 2.- Kirol arloan ohiz kanpoko jarduerak antolatzeko diru-laguntzak

Bigarrenena.-

Udal kirol batzordeak, eskaerak jasotzeko deialdia egin zuen, eta diru-laguntzak emateko lehiaketa prozesu irekia abiarazi. Eskaerak egiteko epea apirilaren 13an amaitu zen, guztira herriko hamabost kirol talde eta elkarteek dirulaguntza eskaera egin dutelarik.

Hirugarrenena.-

Udal Tokiko Gobernu Batzordeak 2024. urteko ekainaren 6an eta 12an egindako bilkuretan esleitu zituen kirol arloko dirulaguntzak, eta esleipenarekin bat esleitutako dirulaguntzen lehen zatia ordaindu zien Udalak herriko kirol elkarte eta taldeei.

Laugarrenena.-

Udal Kirol Batzordeak, 2024ko abenduaren 18an, eta Udal Tokiko Gobernu Batzordeak 2025eko urtarilaren 9an eginiko ohiko bilkuretan onartu zituzten urteko dirulaguntzen zuriketak eta likidazioak, ordura arte aurkeztutakoak, honako entitate eta kirol ekintzarenak izan ezik:

- Gabonetako kuadrilen arteko saskibaloia txapelketa
- Gabonetako futbito txapelketa
- San Silbestre 2024 ixa 2025 herri-krosa

- Burrunda faktoria

Kirol ekintza horiek antolatzen dituzten entitateei 2025eko urtarrilaren 20ra arteko epea eman zaie dirulaguntzak zuritzeko epea.

Dirulaguntza zuritzeko epea iraungita, dirulaguntzen oinarrietan jasotzen den dokumentazioa aurkeztu dute kirol entitateek.

Gertakarien balorazioa:

Lehenengoa.-

Honako kirol ekintzak antolatzen dituzte elkarte eta taldeek zuzen aurkeztu dute dirulaguntza zuritzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Gabonetako lagunartekoen saskibalo txapelketa
- Gabonetako futbito txapelketa
- San Silbestre 2024 ixa 2025 herri-krosa

Bigarrena.-

“Burrunda faktoria” eta ez dute dirulaguntzen oinarrietan eskatzen den dokumentazioa aurkeztu, ondorioz.

Hirugarrena.-

Andarto kirol klubak aurkeztu du dirulaguntza zuritzeko dokumentazio osagarria, Udalak eskatutakoa.

Proposamena:

Lehenengoa.-

“Oñatiko Udalerriko kirol elkarteek kirola sustatzeko antolatzen dituzten ekintzetarako dirulaguntzak” dirulaguntza lerroari dagokionez, honako ordainketa egitea dirulaguntza likidatzeko:

Kod.	KIROL ELKARTEA	KONTZEPTUA	ONARTUA (2.ordainketa)
1	Andarto	Materiala	616 €

Bigarrena.-

“Kirol arloan ohiz kanpoko jarduerak antolatzeko diru-laguntzak” dirulaguntza lerroari dagokionez honako ordainketa egitea dirulaguntza likidatzeko:

Kod.	KIROL ELKARTEA / ERAGILEA	KONTZEPTUA	ONARTUA (2.ordainketa)
1	Aitor Urizar Markuleta	Gabonetako Futbito txapelketa	272.38 €
3	Aitor Barreriro Buezo	Kuadrillen saskibalo txapelketa	299.47 €
4	Atxintxiketan KE	San Silbestre 2024 ixa 2025	354 €
5	Andarto KE	Herri Kirolak	380 €

Hirugarrena.- "Burrunda faktoria"k eta ez du dirulaguntza zuritu, ondorioz Udalak esleitutako dirulaguntza lehen zatiaren ordainketaren zenbatekoa itzuli beharko du elkarteak, hots; 300 €.

Laugarrena.- 1.921.85 €-ko gastua onartzea, 1 0700.481.341.00.04 2024 (283) partida eta bere lotespen mailaren kontura.

Bosgarrena.- Erabaki hau interesdunari eta Kontuhartzaitza Sailari jakinaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan."

Oñatin, 2025eko otsailaren 3an

Alkatea

Sin.: Izaro Elorza Arregui andrea.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	Alk Pro Zuzenketa
CSV/EKS:	SINA9b0d6633-5cbc-4998-99db-71390742bf23

Digitalki sinatua:



Izaro Elorza Arregi
Alkatea
Data: 2025/02/06 10:51:49